

Lan poltsako lan eskaintza irekiak



Asociación
Armeria Eskola
Elkartea

Isasi, 36. 20600 Eibar (Gipuzkoa) / 633 90 93 88
lanpoltsa@armeriaeskola.eus / www.armeriaeskola.eus

Hauexek dira momentu honetan zabalik ditugun lan eskaintzak:

GIZARTERATZE ETA LANERATZEA SUSTATZEN DUEN PROGRAMA: LANERA BIDERATUZ



EIBAR

Gizarteratzeko eta laneratzeko programa berri honen helburua da lan-merkatuan sartzea erraztea. Zure eskura jarriko dugu kontratazio-premiak dituzten inguruko enpresetara hurbiltzeko aukera. Era berean, kontratatzeko orduan bilatzen dituzten trebetasunak eta gaitasunak zuzenean ezagutu ahal izango dituzu.

Programa honetan parte hartzen baduzu, funtsezkoak diren zeharkako gaitasunak eta konpetentzia digitalak ere aktiboki landuko dituzu, baita enplegu gehienak betetzeko behar diren trebetasunak ere.

Profila: Debararrenan edo inguruetan bizi den 16 urtetik gorako edozein langabe.

Programaren ezaugarriak:

Iraupena: 2 hilabete (2024ko urria-azaroa).

Faseak: Banakako orientazioa, taldeko lan-orientazioko tailerra, garapen pertsonala, enpresara hurbiltzea eta laneratzeta.

Prezioa: Dohain.

Parte-hartzaile kopurua: 15.

Izena emateko azken eguna: Urriak 11.

Oso programa gomendagarria da lana aurkitzea helburu duzuenentzat.

CNC ARTEZKETAKO LANGILEA:



ELORRIO

Egin beharreko lanak:

Makinak prestatzea, erremintak erregulatzea eta muntatzea, tresneria muntatzea, programak kargatzea eta prest jartzea.

Tamaina ertaineko serieak artezte eta doikuntza-eragiketak egitea.

Dimentsioen kontrola makinan bertan egitea, metrologiako tresnak erabiliz eta kontrol-jarraibideei jarraituz.

Pieza berriak planteatzea eta programatzea ezarritako amarratze-prozedurei jarraituz, tresnak hautatzea, programatzea (siemens eta fanuc) eta kalitatea kontrolatzea.

Artezteko makinaren mantentze prebentiboa eta zuzentzailea egitea.

Formakuntza: Fabrikazio mekanikoko produkzioko programazioko edo antzeko goi-mailako formakuntza-zikloa.

Ezagutzak: Zubi-garabiko, orga jasotzaileko edota transpaletako karneta izatea baloratuko da, baita metrologia-tresnen erabilerari buruzko ezagutzak izatea ere, hala nola, rugosimetroak, kalibreak, mikrometroak, aloxometroak, erloju konparatzaileak, urkilak, etab.

Esperientzia: CNC artezketa zilindriko eta laueta lan egitea.

Profila: Bere ibilbide profesionala enpresan garatu nahi duen pertsona xehea, diziplinatua, zorrotza eta arduratsua.

Kontratu mota: Kontratu egonkorra enpresatik.

Lanaldia: Lanaldi osoa txandetan, goizez, arratsaldez eta gauez.

Soldata: Soldata lehiakorra eta hautagaiaren balioaren arabera.

LINEA HIBRIDOEN DISEINATZAILEA:



MENDARO

Egin beharreko lanak:

Hortz-inplanteen gaineko errehabilitazioko egitura pertsonalizatuen 3D-ko diseinu digitala egitea.

Lineako eguneroko bileretan parte hartzea, bezeroen erreklamazioekin eta barne-erreklamazioekin

lotutako arazoak edo gorabeherak konpontzeko.

Diseinu-prozesuen eta produktuen etengabeko hobekuntzan parte hartzea.

Formakuntza: Fabrikazio mekanikoko diseinuko goi-mailako formakuntza-zikloa.

Esperientzia: 2 urtekoa CAD-en.

Hizkuntzak: Ingelesa, B2 maila edo goragokoa.

Profila: Ekimena eta proaktibotasuna duen pertsona, berrikuntzarako interesa duena, barneko eta kanpoko bezeroari zuzendua dagoena eta taldean lan egiteko gaitasuna duena.

Kontratu mota: Kontratu egonkorra enpresatik.

Lanaldia: Lanaldi osoa zatitua.

Ordutegia: Astelehenetik ostegunera 08:00etatik 13:00etara eta 14:30etatik 17:00etara eta ostiraletan 07:00etatik 15:00etara.

Soldata: Soldata erakargarria, hautagaiaren balioaren eta esperientziaren arabera.

MANTENTZE ELEKTROMEKANIKOKO TEKNIKARIA:



ABADIÑO

Egin beharreko lanak

Makineria mantentzea eta konpontzea maila elektrikoan.

Makinak martxan jartzea eta koadroak eta automatismoak instalatzea.

Mantentze prebentibo, prediktibo eta zuzentzaileko eta etengabeko hobekuntzako jarduerak egitea.

Formakuntza: Mantentze elektroniko edo mekatroniko industrialeko goi-mailako formakuntza-zikloa.

Ezagutzak: Sistema elektronikoetan, automatetako programazioan, pneumatikan, hidraulikan, elektrizitate industrial eta mekanikoan eta labeak, granailak edota linea industrialak martxan jartzean.

Esperientzia: 5 urtekoa linea industrialen mantentze-lanetan.

Kontratu mota: Kontratu zuzena eta egonkorra enpresatik

Lanaldia: Lanaldi osoa txandetan, goizez eta arratsaldez.

Soldata: Urtean 35,5 eta 40 mila euro bitartean, hautagaiaren balioaren eta ekarpenaren arabera.

CNC TORNULARIA:



ELGETA

Egin beharreko lanak:

CNC tornuko lanak egitea.

Makina programatzea eta martxan jartzea.

Egindako piezak ekoiztea eta neurtzea.

Formakuntza: Mekanizazioko erdi- edo goi-mailako formakuntza-zikloa.

Esperientzia: Ez da beharrezkoa, baina baloratuko da.

Kontratu mota: Behin-behineko kontratua hasiera batean.

Lanaldia: Lanaldi osoa txandetan, goizez eta arratsaldez.

SAT TEKNIKARIA IPARRALDEAN:



IURRETA

Egin beharreko lanak:

Bezeroaren makinak konpontzea.

Makinak instalatzea eta desinstalatzea.

Makina instalatu ondoren erabiltzeko oinarrizko formakuntza ematea.

Showroom-a erakusteko makinak martxan jartzea.

Formakuntza: Ingeniaritza tekniko edo mekatronikako goi-mailako formakuntza-zikloa.

Esperientzia: Makinak muntatzen eta konpontzen esperientzia frogagarria.

Hizkuntzak: Ingelesan maila altua.

Kontratu mota: Kontratu finkoa.

Lanaldia: Lanaldi osoa zatitua.

Bidaiatzeko prest egotea: Bai.

DEKOLETAJEKO LANGILEA:



BERGARA

Egin beharreko lanak:

Dekoletajeko CNC tornuen fabrikazioaren jarraipena egitea.

Kontrol-planoetan eskatzen diren dimentsioen kalitate-eskakizunak eta geometriak betetzen direla egiaztatzea.

Kalitate-eskakizunak betetzeko behar diren parametroak zuzentzea.

CNC dekoletajeko tornuak elikatzea (barrak kargatzea).

Mekanizazio-erremintak presatzea.

Denborarekin, CNC mekanizazio-programa berriak aldatzea eta sortzea.

Formakuntza: Mekanizazioko erdi- edo goi-mailako formakuntza-zikloa.

Esperientzia: Ez da beharrezkoa.

Kontratu mota: Kontratu mugagabea.

Lanaldia: Lanaldia osoa txandaka.

Soldata: 18.000€ - 24.000€.

Automobil propioa izatea: Ez da beharrezkoa.

Bidaiatzeko prest egotea: Ez da beharrezkoa.

FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOKO

TEKNIKARIA:



BERGARA

Egin beharreko lanak: Hainbat piezatarako makinaren zaintza eta aldaketak egitea.

Formakuntza: Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioko goi-mailako formakuntza-zikloa.

Esperientzia: Ez da beharrezkoa, baina baloratuko da.

Kontratu mota: Kontratu mugagabea.

Lanaldia: Lanaldi osoa 2 txandatan, goizez eta arratsaldez.

METROLOGIAKO TEKNIKARIA:



ZALDIBAR

Egin beharreko lanak:

Ekoizpenaren dimentsio-kontrola eta egonkortasuna bermatzea, kalitate-arduradunarekin batera.

Tailerreko neurketak, kalibrazio sistema, produktuaren liberazioa, etab. egitea

Formakuntza: Metrologian espezializatzea.

Ezagutzak: ISO 9001 eta IATF 16949 arauetan, planoak interpretatzen, core tools-en eta Metrolog programan ezagutzak izatea baloratuko da.

Esperientzia: Antzeko funtzioetan.

Hizkuntzak: Ingelesa baloratuko da.

Kontratu mota: Kontratu mugagabea.

Lanaldia: Lanaldi osoa.

Lan-ordutegia: 06:00etatik 14:00etara.

Soldata: Balioaren arabera.

DELINEATZAILE PROIEKTUGILEA:



BERRIZ

Egin beharreko lanak:

Tresneriaren, trokelen ordezkoen eta trokel berrien strip lay-out-en osagaiak diseinatzea eta diseinatzen laguntzea.

Dauden trokeletan aldaketak diseinatzea, horien eraginkortasuna hobetzeko.

Ordezko piezen biltegia kudeatzea tooling engineering managerrarekin lankidetzan, trokelak ahalik eta azkarren zerbitzuan behar bezala eta segurtasunez gutxieneko stockarekin jarriko direla bermatzeko.

Formakuntza: Fabrikazio mekanikoko diseinuko goi-mailako formakuntza-zikloa.

Esperientzia: Ez da beharrezkoa.

Lanaldia: 3-4 orduko lanaldi murriztua, praktikaldiko kontratu batekin, oraindik gradua egiten ari diren pertsonentzat, edo lanaldi osoa, 6 hilabeteko kontratu batekin, gradua amaitu duten

pertsonentzat.

Disponibilitatea: Berehalakoa.

MANTENTZE-LANETAKO TEKNIKARIA:



HERNANI

Egin beharreko lanak:

Matxura elektrikoak edo mekanikoak diagnostikatzeko eta konpontzeko lanak egitea, zuzenketan, ezarritako beharren eta lehentasunen arabera.

Prebentziozko mantentze-lanak egitea aldiari behin, esku-hartzeak erregistratuta.

Programatutako jarduketan mantentze prediktiboa egitea.

Akatsak eta matxurak detektatzea, produkzio-lerroa etengabe hobetuz.

Beharrezko ordezkoko piezen ardura hartzea, hau da, izakinak kontrolatzea, ordezkoko piezak identifikatzea eta behar bezala biltegiarazten direla ziurtatzea.

Formakuntza: Mantentze mekaniko, elektromekaniko edo mekaniko industrialeko goi-mailako formakuntza-zikloa.

Ezagutzak: Pneumatika hidraulikoan eta soldaduran.

Laser edo puntzonatzeko makinak, tolesteko makinak eta abar erabiltzen jakitea baloratuko da.

Esperientzia: Laser-makinak, tolesteko makinak, panelatzeko makinak, puntzonatzeko makinak, zulagailuak eta abar konpontzen.

Kontratu mota: 3 eta 6 hilabete bitarteko proba-kontratua, mugagabe izateko aukerarekin aldi hori amaituta.

Lanaldia: Astean 3 9 orduko lanaldi osoa txandaka.

Automobil propioa izatea: Ez da beharrezkoa.

Bidaiatzeko prest egotea: Ez da beharrezkoa.

LASER ETA TOLESTEKO MAKINAKO LANGILEAK:



HERNANI

Egin beharreko lanak:

Tolesteko makinetarako edo laserrera esleitutako produkzio-orriak behar bezala garatzen direla ziurtatzea.

Tolesteko makinan matrizeak eta puntzoiak produkzio-orriaren arabera programatzea eta jartzea, edo laser-makinako arazoak konfiguratzea, operatzea eta konpontzea.

Fabrikatutako piezen kalitatea ziurtatzea bezeroaren eskakizunen arabera.

Formakuntza: Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioko edo fabrikazio mekanikoko diseinuko goi-mailako formakuntza-zikloa.

Ezagutzak: Trumpf edo Salvagnini tolesteko makinak maneiatzen, matrizeak eta puntzoiak jartzen eta CNC tolesteko programak sortzen edo laserra zentratzen eta konfiguratzen.

Planoak interpretatzen eta laser-makinak, puntzonatzeko makinak, okintzeko makinak eta abar neurtzeko eta maneiatzeko tresnak erabiltze ezagutzak izatea baloratuko dira.

Kontratu mota: 3 eta 6 hilabete bitarteko proba-kontratua, mugagabe izateko aukerarekin aldi hori amaituta.

Lanaldia: Astean 3 9 orduko lanaldi osoa txandaka.

Automobil propioa izatea: Ez da beharrezkoa.

Bidaiatzeko prest egotea: Ez da beharrezkoa.

SOLDATZAILEA:



ABADIÑO

Egin beharreko lanak: Soldadura-lanak egitea.

Formakuntza: Soldadurako profesionaltasun-ziurtagiria.

Ezagutzak: Altuak piezen eta egitura mekanikoen planoak interpretatzen.

Esperientzia: Gutxienez 3 urtekoa soldadura erdiautomatikoan.

Kontratu mota: Kontratu mugagabea probaldiaren ondoren.

Lanaldia: Lanaldi osoa zatitua.

Ordutegia: Astelehenetik ostegunera 08:00etatik 13:00etara eta 14:30etatik 17:30etara eta ostiraletan 07:00etatik 14:00etara.

KALITATE-KONTROLEKO LANGILEA:



ERRENTERIA

Egin beharreko lanak: Kalitate-buruarekin lankidetzeta estuan, honako hauetan laguntzea:

Produkzio-prozesuaren faseetan piezen neurketa eta kontrola egitea, bai eskuz, bai hiru dimentsioko makinarekin.

Pc-Dmis kontrol-programa duen hiru dimentsioko makina globala erabiltzea.

Neurketa-ekipoaren erabilera maneiatzea: Alexometroa, rugosimetroa, mikrometroak, kalibreak, profilen proiektorea, hiru dimentsioko makina, etab.

Kalitatea kontrolatzeko bitartekoak eta ekipoak kalibratuta eta eskatutako baldintzetan edukitzea.

Produktu bakoitzaren kalitate-plana eta kalitate-planeko prozesuak egiaztatzeke eta kontrolatzeko jarraibideak eta bitartekoak zehazten laguntzea.

Produktuak fabrikatzeko prozesuan kalitate-jarraibideen jarraipena egitea eta horiek betetzen direla kontrolatzea, hautemandako desbideratzeei edota arazoei erantzuteko beharrezko ekintzak proposatzen eta koordinatzen.

Gorabeherak eta desadostasunak kudeatzen laguntzea.

Formakuntza: Mekanizazioko erdi-mailako edo goi-mailako formakuntza-zikloa.

Ezagutzak: UNE-EN 9100 arauan eta Nadcap prozesu ziurtatuan.

Excel, office paketea eta ERP-rekin lan egitera ohituta egotea baloratuko da.

Esperientzia: Pc-Dmis hiru dimentsioko neurketa-programaren maneian, lehen aipatutako neurketa-ekipoen erabileran eta plano eta perdoi geometrikoen interpretazioan.

Mekanizazioan aldez aurretik esperientzia izatea baloratuko da.

Hizkuntzak: Frantsesa eta ingelesa jakitea baloratuko da.

Profila: Pertsona proaktiboa, bitxia, ikasteko eta esperimendatzeko gogoia eta enpresarekin eta proiektuarekin konpromisoa duena.

Kontratu mota: Kontratu mugagabea.

Lanaldia: Goizeko eta arratsaldeko txandak edo lanaldi zatitua izateko prestasuna.

Soldata: Lehenengo, soldata hautagaiaren esperientziaren arabera izango da, eta gero aurrera egin ahala.

Eskaintzen du: Talde dinamiko eta hurbil bateko kide izatea eta enpresak urte hauetan izan duen

hazkundearekin jarraitzen laguntzea.

LANTEGIKO LANGILEA:



ELGETA

Egin beharreko lanak: Abrazaderak egitea, piezaren luzaerara moztea prentsan edo tornuan, tornuan mekanizatua egitea, haria ematea eta tolestea hotzean edo beroan.

Formakuntza: Mekanizazioko erdi-mailako formakuntza-zikloa.

Esperientzia: Ez da beharrezkoa, baina baloratuko da.

Kontratu mota: Txanda-kontratua.

Lanaldia: Lanaldi osoa goizean.

Lan-ordutegia: 06:00etatik 14:00etara.

Soldata: 1.454,30€ gordin hilean.

Automobil propioa izatea: Ez da beharrezkoa, baina komenigarria da. Hara ere, karneta izan arte enpresara igo ahal zaio.

Inkorporazioa: Irailean.

Lanpostu hutsak: 2.

AUTOMOBILGINTZAKO PROZESUETAKO TEKNIKARIA:



ZALDIBAR

Egin beharreko lanak:

Muntaia eta soldadurako prozesu automatizatueta Zaldibar, Izurtza eta Iciarreko plantei euskarria ematea.

Mihiztatze-prozesuen ingeniari-ta-arduradunari laguntzea.

Soldadura-prozesuak definitzea eta horiei euskarria ematea, eskaintzak hasten direnetik proiektua homologatu arte, eta unean-unean ekoizpen- eta kalitate-sailei laguntzea.

Formakuntza: Goi-mailako formakuntza-zikloa, ahal dela metal-eraikuntzetan, edo bestela, fabrikazio mekanikoko diseinuan.

Ezagutzak: Soldatzeko prozesu nagusietan eta planoak interpretatzen.

Hizkuntzak: Ingelesa jakitea baloratuko da.

Profila: Taldeko pertsona eta helburuetara orientatuta.

Kontratu mota: Profilaren arabera, praktiketakoa, DUAL-ekoa edo kontratu egonkorra, helburua pertsona formatzea eta finko bihurtzea izango litzateke.

Lanaldia: Lanaldi osoa zatitua.

Lan-ordutegia: 08:00etatik 13:30etara eta 14:30etatik 17:00etara eta ostiraletan 8:00etatik 14:00etara gutxi gorabehera.

Soldata: Pertsonaren profilaren arabera.

Automobil propioa izatea: Ez da beharrezkoa, baina baloratuko da.

Bidaiatzeko prest egotea: Bai.

MEKANIKARIA:



MALLABIA

Egin beharreko lanak: Mekanikari-lanak egitea.

Formakuntza: Instalazio elektriko eta automatikoetako erdi-mailako formakuntza-zikloa.

Esperientzia: Ez da beharrezkoa.

Kontratu mota: Kontratu mugagabea.

Lanaldia: Lanaldi osoa zatitua.

Soldata: 18.000€ - 24.000€.

Automobil propioa izatea: Bai.

Bidaiatzeko prest egotea: Ez da beharrezkoa.

--

Gure lan eskaintzaren bat interesatuz gero, bidali zure CV-a lanpoltsa@armeriaeskola.eus helbidera eta enpresari bidaliko diogu.

Edozein zalantza baduzu gurekin jar zaitezke harremanetan.

Informazio gehiagorako: Eider / Malen.

943 20 32 44

lanpoltsa@armeriaeskola.eus